

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irungero


308

Irailak 1, 2017

IÑAKI VERGARA errugbi epailea:

“Epaileak huts egiten baldin badu ere, jokalariek ez dute inguratzen eta estutzen”

- 2** Irun Atzo Irun Gaur
- 3** Berriak
- 4** Expogrow 2017
- 5** Erreportajea: Gordailua
- 6-7** Plaiaundiko instalazioen lekualdatzea
- 8-9** Iñaki Vergarari elkarrizketa
- 11** Haurren leihoa
- 12** Gazteen lanak
- 13** Elkarrizketa: Lorena Viera
- 14** Gazte informazioa
- 15** Agenda



Argazkia: Gover



bertako
Izogailuak | ascensores
Izogailuen mantentzen-lanak

www.bertako.eus - info@bertako.eus

- ✓ 24 orduko asistentzia abixu guztientzat
- ✓ Iraupen-konpromisorik gabeko kontratuak
- ✓ Orotariko zerbitzua 100 € -tik aurrera
- ✓ Euskerazko zerbitzua
- ✓ Eskatu zure aurrekontua 943903450

PRUDENCIA ARBIDE KALEA



1949ko abuztuaren 31ko Osoko Bilkuran jarri zioten izena. San Juan Harria plazatik irten eta Eguzkitzaldea kaleraino doana da. Prudencia Arbide Zubelzu Irunen jaio zen, 1865eko apirilaren 27an, nekazarien familia aberats batean, neurri handi batean, Amerikara emigratu zuen ahaide baten herentziagatik. Bordatxiki baserriaren jabe izatetik Irungo Aranibar eta Inkulegi Bekoa baserriak eta Hondarribiko Argiñenea errotera pasa ziren. Beste finka batzuk ere bazituzten, Irunen eta Donostian. 1910ean Argentinan zituzten jabegoek, garai hartako 10.340.000 pezetako balioa zuten.

Familiak Donostiara bizitzera joateko erabakia hartu zuenean, Irungo Udal Ospitaleari dohaintza ugari egin zizkion, behartsuei laguntzeko eta bestelako ongintza lanetarako. Maria Konpainiaren "El Pilar" eskola sortzeko kontribuzio pertsonala egin zuen Prudencia Arbidek. Manuel Ugalde eta Jose Eginio apaizek aholkaturik, eskola berriak eraikitzeko lurak erosi zituen, 1922an. 1923ko urriaren 12an jarri zuten lehen harria, eta Manuel Sainz de Vicuña y Camino arkitekto jaunaren proiektua jarraituz burutu zuten obra. 1927an inauguratu zuten.

1936an "El Pilar" suntsitu zutenean, Prudencia Arbidek berreraikitzean parte hartu zuen. Udalak omenaldi bat eskaini zion 1949ko abuztuaren 31n, "Hiriko alaba kultura" izendatuz. Egun berean, udalean harrera egin ondoren, kaleraino lagundu eta bere izena zeraman plaka erakutsi zioten. 1960ko urtarrilaren 17an zendu zen Prudencia Arbide.

**Iturria: José Monje
Irungo kaleen izenak**

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena
Unai Oiartzun
Ainara Berges

Euskara zuzentzilea:

Unai Oiartzun

Publizitatea:

Sonia Garcia Olazabal
Amaia Terrazas
Ion Otxoa

Diseinua:

Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 2052

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Eskolako materiala Irunen erosteko diru-laguntzak eskainiko ditu udalak

“Erosi eta ikasi” kanpainak 200.000 euroko aurrekontua izango du

Eskolako materiala Irungo dendetan erosteko diru-laguntzak eskainiko ditu Irungo Udalak. Laugarren urtez antolatu du udalak diru-laguntza deialdia, eta aurtengo aurrekontua 200.000 eurokoa izango da. Diru-laguntzen eskaera abuztuaren 18tik irailaren 29ra burutu ahal izango da.

Datorren ikasturterako udalak eskainitako diru-laguntza kanpaina honek helburu bikoitza dauka. Alde batetik, haur irundarren familiek eskolako materialean burutzen duten gastua arindu nahi du. Bestetik, eskolako materialaren erosketaren bitartez, hiriko dendek merkataritza bultzatzea da asmoa.

Diru-laguntzak abuztuaren 18tik aurrera eta irailaren 29ra arte eskatu ahal izango dira. Eskaera burutzeko

ezinbestekoa izango da Irungo saltokietan buruturiko eskolako materialaren erosketen ticket-ak aurkeztea. Gainera, ekainaren 23tik irailaren 29ra bitarte eginiko erosketak izango dira soilik baliagarriak.

“Erosi eta ikasi” kanpaina Derrigorrezko Hezkuntzan ari diren eta Irunen erroldaturik dauden haurrentzat pentasuta dago. Beka eskatu ahal izateko, Irun Txartela edukitzea ezinbestekoa izango da eta izen-ematea internet bidez egin beharko da, udalaren webgunean ageri diren urratsak jarraituz.

Irungo Udalak laugarren urtez antolatu du diru-laguntza deialdia, aurreko urteetako eskaeraren arrakasta ikusi ostean. Izan ere, iaz 1.500 eskaera baino gehiago burutu ziren 2.000 haur baino gehiagorentzat. Diru-laguntzak

esleitzerako orduan familien errentei erreparatuko zaie. Hortaz, diru-laguntza osorik, diru-laguntzaren zati bat bakarrik eta diru-laguntzarik eskuratuko ez duten familiak egongo dira, familien errenta mailaren arabera.

Diru-laguntza honen barnean era askotako materiala sartuko da. Hala nola, idazteko materialak eta suntsigarriak, suntsigarria ez den materiala, eskolako jarduerarako beharrezkoak diren janzteko artikulak eta eskulanetarako elementuak. Aurten, berrikuntza moduan, lehen aldiz liburu elektronikoen erosketak kontuan hartuko da, beti ere liburu hauek Irungo entitate batean erosiak izan badira.

2018an eraikiko dute Santiago eta Plaiaundi elkartuko dituen bidegorria

Plaiaundi Parke Ekologikoa garatzeko bilerak duela lau urte hasi ziren

Santiagoko bidegorria eta Plaiaundiko Parke Ekologikoa elkartuko dituen bidegorriaren eraikuntza 2018an abiatuko da. Proiektu honen barnean oinezkoentzako pasealekua eta bidegorria eraikiko dira. Irungo eremu desberdinen arteko komunikazioa hobetzeaz gainera, proiektu honekin urmael berri baten eraikuntza bultzatuko da.

Proiektua gauzatzeko bilerak duela lau urte abiatu ziren, 2013an proiektuaren ideia Eusko Jaurlaritzan jakinarazi ostean. Abenduan proiektuaren lizitazioa lortu eta gero, martxoan proiektuaren erredakzioaren kontratua esleitu zen. Era honetan, duela lau urte Irungo Udalean sorturiko ideia errealitate bilakatuko da azkenean.

Hasiera batean, Plaiaundi Parke Ekologikoa Abenida Zubiarekin elkartzea zen proiektuaren ideia. Dena dela, udal teknikariek pasealeku berria Santiagoraino luzatzea proposatu zuten, pasealeku berri honen praktikotasuna

handitzeko asmoz. Azkenean, Pierre Loti ibilbideak elkartuko du Plaiaundiko eremua nazioarteko zubiekin.

Proiektu honek hirian barrena bizikleta mugikortasuna erraztea ahalbidetuko du. Horrez gainera, proiektuarekin loturik, urmael berri bat sortuko da Plaiaundiko Parke Ekologikoan. Urmael hori Plaiaundi Institutuaren atzealdean kokatuko da eta San Lorenzo izena ipiniko diote.

Proiektuaren erredakzioaren kontratua esleitu ondoren, Eusko Jaurlaritzak Irungo Udalarekin harremanetan jarri da, proiektuaren garapenean aurrera egiteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian zehaztu denez, proiektua garatzeko obrak 6 hilabeteko iraupena izango du eta 70.180 euroko aurrekontua bideratuko da proiektuaren garapenerako.



ANTXETA

IRRATIA

90.5 / 89.7 FM

Anaka kalea, 11
IRUN
943.61.54.57

TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943.64.54.57



BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN

Badator kalamuari eskainitako asteburua

Seigarren edizioa izango du Expogrow azokak, irailaren 15etik 17ra, Ficoban



Irailaren 15etik 17ra izango da Expogrow kalamuaren nazioarteko azoka, Irungo Ficoban. VI.edizioa izango du dagoeneko, eta estatuko eta Europako azoka garrantzitsuen artean kokatu da, kalamuaren kulturari dagokionez. 5.000 metro karratuko espazioa hartuko du Ficobako lau pabiloietan, kanpoko aparkalekuaz gainera (7.000 metro karratu). Mundu osotik etorritako enpresa eta elkarteek haien produktuak eta zerbitzuak eskainiko dituzte, 180 erakustokitan. Sektoreko profesionalak eta bezeroak erakarriko ditu. Iaz, esate baterako, akreditatutako 1.200 profesional, eta 17.000 bisitari hartu zituen Expogrowk.

Aurreko bost edizioetan, azokaren zutabeetako bat izan da Kalamuaren Nazioarteko Foro Soziala. Aurten formatu berria emango diote, Cannabis Box Forum izenarekin. Kalamuaren eta droga politiken inguruko hainbat gai landuko dituzte, hitzaldi eta mahai-inguruetan: aspektu

terapeutikoa, aktibismoa, erregulazio prozesuak, emakumeen rola etab. Talk Show moduan ariko dira hizlariak, eta publikoak ere parte hartu ahal izango du.

Hizlarien artean nabarmendu daitezke Augusto Vitale uruguaiarra eta Michael Collins eskoziarra. Vitale psikologo bigarren aldiz egongo da Expogrow-ko foroan. Aditua da droga politketan, indarkeriaren prebentzioan eta osasunaren sustapenean. Michael Collins eskoziarra Washington DCko Drug Policy Allianceko zuzendariordea da, eta bere ikuspuntua eskainiko du.

Chambao eta Asian Dub Foundation ariko dira zuzenean

Musika emanaldiak ere egongo dira, kanpoko aparkalekuan, ostiralean eta larunbatean, 19:00etatik aurrera. Hiru taldek eskainiko dituzte emanaldiak, egun bakoitzeko. London Afrobeat Collective, Dirty South Crew eta

Chambao ariko dira ostiralean (irailak 15), eta Asian Dub Foundation, Saritah eta Natascha Rogers larunbatean (irailak 16). Dj Don Cornelius eta Dj Víctor Santana ariko dira lehenago, karpa girotzen, ostiralean eta larunbatean, hurrenez-hurren.

Sarrerarekin azokara, forora eta kontzertuetara sartu ahal izango du bisitariak. Aldez aurretik erosita, egun bateko sarrerak 15 euro balioko du, bi egunekoak 23, eta hiru egunekoak 28. Iganderako sarrera berezia eskainiko dute, 12 euroren truke (kontzerturik gabe). Ficobako leihatilan erosiz gero, garestiagoak izango dira sarrerak (18, 26, 30 eta 15). Ostiralean, publiko orokorrarentzat atea zabalduta aurretik, B2B (Business to business) saioa egingo dute, sektoreko profesionalentzat bakarrik (9:30-14:30). Bestalde, familia osoarentzako jarduerak, aisialdirako eremuak, gastronomia eta sarien banaketa ere egongo dira.

sartu www.txingudionline.com-en eta ezagutu hobeto zure hiria

Ereala munduan, Kizilua, Desde nueve metros, restapasaoko: La Baraitza, Ocurrir, Falso de cine, Historias del Bidasoa, Zuboga, Kizilua, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Hala, Porte en forma, Ereala munduan, Kizilua, Desde nueve metros, restapasaoko: La Baraitza, Ocurrir, Falso de cine, Historias del Bidasoa, Zuboga, Kizilua, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Hala, Porte en forma.



HENDAIA IRUN HONDARRIBIA

 **txingudionline.com**

restapasaoko: La Baraitza, Ocurrir, Falso de cine, Historias del Bidasoa, Zuboga, Kizilua, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Hala, Porte en forma, Ereala munduan, Kizilua, Desde nueve metros, restapasaoko: La Baraitza, Ocurrir, Falso de cine, Historias del Bidasoa, Zuboga, Kizilua, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Hala, Porte en forma.

berriak, erreportajeak, historia, kirolak, hurbiltasuna, eztabaidak

Zuboga, Kizilua, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Hala, Porte en forma, Ereala munduan, Kizilua, Desde nueve metros, restapasaoko: La Baraitza, Ocurrir, Falso de cine, Historias del Bidasoa, Zuboga, Kizilua, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Hala, Porte en forma.

Euskal altxorren biltegia

Gipuzkoako ondare higikorra eraikin batean bateratzea ahalbidetu du Gordailuak



Gipuzkoako Foru Aldundiak sustaturiko eraikina da Gordailua. Egiteko bikoitza daukala azaldu du Carlos Olaetxea zuzendariak: "Gordailuaren misio nagusia Gipuzkoako ondare higikorrak baldintza onenetan gordetzea da". Honetaz gainera, Gordailuaren biltegietan gorderik dagoen ondarea museoetan egingo diren erakusketetan ikusgai ipintzea da zentro honen bigarren helburua.

Gordailua eraiki aurretik, Gipuzkoako ondare higikorra Foru Aldundiaren biltegi desberdinetan sakabanaturik zegoen. Zentro honen eraikuntzari esker, Gipuzkoako ondarea bateratzea posible izan zen. Gordailuaren barnean instituzio ezberdinen funtsak gorderik daude. Hala nola, San Telmo Museoak, Irungo Udalak, Nestor Basterretxearen familiak eta beste hainbat udalek gauzak gorderik dauzkate Gordailuaren barnean.

Gipuzkoako ondarea, eraikina osatzen duten hiru solairuetan zehar banaturik dago. Lehen solairuan pieza handi eta pisutsuenak pilatzen dira, bigarren solairuan gauza ikusgarrienak ikusgai daude, eta azken solairuan, hain ikusgarriak ez diren gaintzeko gauza guztiak gordetzen dira. Biltegi arruntez gainera, klima berezietako bi biltegi dauzka gordailuak, pieza delikatuenen kontserbazioa bermatzeko. Biltegi berezi hauetan burdinak, papera eta ehunak kontserbatzen dira.

Gordailuan era askotariko eta jatorri desberdineko materialak gordetzen dira. "Materialaren kontserbazio beharren arabera sailkatzen dira gauzak Gordailuan, eta ez jabearen arabera", adierazi du Carlos Olaetxea Gordailuko zuzendariak. Era honetan, piezen sarrera-irteerak kontrolatu ahal izateko, pieza bakoitzak QR etiketa bat dauka. Etiketa honek piezaren informazioa biltzen du eta uneoro pieza lokalizaturik edukitzea ahalbidetzen du.

Biltegi funtzioa da Gordailuaren aurpegi ezagunena. Hala ere, beste jarduera asko burutzen dira eraikin honen barnean. Carlos Olaetxeak jakinarazi du hilabete bakoitzeko azken ostiralean bisita gidatuak antolatzen dituztela Gordailuaren barnean, baina bisita horiek ez dutela arrakasta ge-

"Gordailuaren misio nagusia Gipuzkoako ondare higikorrak baldintza onenetan gordetzea da"

"Materialaren kontserbazio beharren arabera sailkatzen dira gauzak Gordailuan, eta ez jabearen arabera"

Carlos Olaetxea,
Gordailuko zuzendaria

hiegirik. Horregatik, Gordailu barruko jarduera ikerlariei zuzendurik dago batez ere, udako ikastaro eta seminarioen antolaketaz gainera.

Eraikinaren kokapenak paper garrantzitsu bat betetzen du Gordailuak beste erakundeekin dauzkan harremanetan. Gordailuan gordetzen diren pieza gehienak Gipuzkoako instituzio desberdinen eskuetatik jasoak izan dira. Hala ere, Frantziako mugatik gertu kokaturik egoteak, nazioarteko harremanak errazten ditu eta, esaterako, Baionako Euskal Museoari haren erakusketentzako Gordailuko piezak utzi izan zaizkio. Era honetan, estatu barneko zein nazioarteko piezen elkartrukea bultzatzeko intentzioa du Gordailuko zuzendaritzak.

Gordailuaren barnean era askotako gauzak gorde daitezkeen arren, edonork ezin dezake erabili. Bi baldintza nagusi bete behar dituzte Gordailuan gordeko diren gauzek. Alde batetik, Gipuzkoako ondarrerako pieza esanguratsuak izan behar dira eta, bestetik, bertan gordetzen diren piezak erakusketetarako biltegietatik atera ahalko dira. Neurri hauekin, Gordailua ganbara ahaztu bihurtzea ekidin nahi da.

Piezen joan-etorria

Eraikuntza lanak 2011n amaitu zirenetik, piezak biltzen aritu da Gordailua. Carlos Olaetxea zuzendariak argitu du urtean 500 pieza berri sartzen direla biltegietara, eta 200-300 pieza inguru irteten direla erakusketetarako. Etorkizunari begira piezen mugimendua areagotu nahi da, izan ere, badira eraikinean sartu zirenetik kanpora irten ez diren pieza asko.

Une honetan Gordailuaren edukieraren %20 libre aurkitzen da, baina pieza batzuk birkokatuz gero, libre dagoen espazioa handitu ahalko litzateke. Etorkizunearan espazio gehiago izatea beharrezkoa balitz, zuzendaritzak arazo honi aurre egiteko irtentzako bide posiblea bilatu du jada. Gordailuko eraikinetik gertu beste eraikin bat erostea da ideia, tarteko funtzioa bete eta piezen lehen txukunketa lanak bertan burutzeko.

Hautsak harrotu ditu, berriro, Plaiaundiko instalazioen lekualdatzeak

Filtrazio batek azaleratu du udal gobernuaren B plana: Olaberria auzoko Beko Errota eremua

Enegarren aldiz piztu da Plaiaundiko kirol instalazioen lekualdatzearen inguruko eztabaida. Uztailan izan da oraingoan, Diario Vasco egunkariak argitaratu duen informazio baten harira. Udal gobernuaren ustezko "B" planaren berri eman zuen uztailaren 13an: Olaberria auzoan dagoen Beko Errota lursaila, Txingudiko Zerbitzuak-en egoitzaren aldamenean dagoena. Erreakzio erauntsia etorri da segidan, hiriko talde politikoen eta zenbait elkarteren partetik. Azkenean, udal gobernuak irailerako finkatu du gaiari buruzko eztabaida politikoa.

Azken urteotan, Puianaren eta Gibeletaren ondoan dagoen Zubieta finka izan da Irungo Udalaren lehen aukera, baina korapilatsua da, eta atzeratuz joan da eten-gabe. Talde ekologisten arabera, 2019ko uztailerako, Plaiaunditik kanpo behar litzuzke Irungo Udalak kirol instalazioak. Estuario ekosistemako gunegisa eraldatuta egon beharko luke espazioak ordu-rako, sei urte beteko baitira Natura 2000 Sareko Neurrien eta Ekintzen dokumentua onartu zenetik. Bertan, atletismo pista eta errugbi zelaia Plaiaunditik ateratzea helburu nagusi gisa jarri zuen Irungo Udalak. Beteko ez balu, Europako Batzordearen isun handiak jasoko litzuzke (3 eta 20 milioi euro artekoak).

Edonola ere, bi hamarkada baino gehiago daramatza gaiak mahai gainean, soluziorik gabe. Zubietako proiektuan Hondarribiko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ere parte hartzen dute, eta luze doa oraindik. Hori dela eta, beste aukerak aztertzeari ekin dio udal gobernuak, denbora aurrera doala kontuan hartuta. Olaberriako planteamendua azaleratzeak, kritikak eragin ditu. Ekologistak Martxan taldeak gogorarazi du hiriko talde politikoei eta hainbat elkartetek Olaberria eremua "bere osotasunean" ba-

besteko akordioa lortu zutela, Olaberria Harana Babesteko Plan Berezia garatzeko: "Landa jardueraren eta ingurumenaren defentsaren aldeko erabilera sustatzeko erabakia hartu genuen". Gobernu taldeak "konpromiso falta" duela salatu du Ekologistak Martxan-ek: "Bere garaian adostutako erabakia pikutara bidaltzen ari da".

OPLAren kritikak jaso ditu udal gobernuak

Olaberriako aukerak haranaren inguruko adostasuna hautsiko lukeela berretsi du, era berean, OPLA Olaberriako Bailara Babesteko Plataformak. Salaketa gogorra-
goak ere egin ditu, auzokide eta

"Akatsa litzateke babestutako espazio batetik, babestua izateko bidean dagoen beste batera lekualdatzea"

Olaberriako Bailara Babesteko Plataforma

bizilagunei baino lehenago, informazioa hedabide bati ezkutuan eman izana, esaterako. Irungo Udalak eskatuta, L.K.S. enpresak 2016an argitaratutako txostena gogorarazi du OPLAK. Olaberriako haranaren ondorengo ezaugarriak azpimarratu zituzten txosten horretan: paisaiaren edertasuna, ingurumen balioa,

kultur eta landa ondarea. Bizikletentzako eta oinezkoentzako ibilbideak eraikitze eta lehen sektorea indartzeko jardueren beharra ere nabarmendu zituzten.

Plaiaundiko instalazioak lekualdatzeko udal gobernuak duen presari egotzi dio OPLAK Olaberriako aukeraren berri eman izana, Zubietako aukera erabat baztertu gabe: "Akatsa litzateke babestutako espazio batetik, babestua izateko bidean dagoen beste batera lekualdatzea". Felipe

Uranga plataformako kideak haien jarrera arrazoitu du Antxeta Irratian: "Ematen du edozein proiekturen kontra gaudela, eta ez da horrela. Baina beldur gara, ikusten dugulako Irungo beste landa eremuak nola gelditu diren". Urangak nabarmendu du, era berean, Plaiaundiko erabiltzaile diren kirol elkarteek aterabide egokia merezi dutela. Horretarako, alabaina, beste aukerak aztertze eskatu dio udal gobernuari.





Ketty's Academy

- Klaseak taldeka eta pertsonalizatuak
- Esperientzia zabala ingelesaren irakaskuntzan
- Enpresentzako klaseak: ingelesa, alemana, italiara, frantsesa, espainiera
- Maila guztiak
- Tituluak eskuratzeko klaseak

Kale Nagusia, 27
943 635259
IRUN
J. M. Iparragirre
kalea, 10 - behe 4
IRUN
652 777 360
kettysacademy@gmail.com

EGONALDIAK EEUUetako famillirekin



Ingelesa 4 urtetik aurrera !!

Proposamenak egin ditu oposizioak

Oposizioko taldeen artean, Si Se Puede Irun Ahal Dugu (SPI) izan da gaiaren inguruan iritzia ematen lehena. David Soto taldeko bozeramaileak hogeitun urtean zehar "beste alde batera" begiratu izana leporatu dio PSE-EEri. Orain, Beko Errotakoa "urgentziazko" neurria dela ere adierazi du. Sozialisten gobernuakide den EAJren jarrera ere ez du ulertzen Sotok: "Hiriko hauteskunde programetan Olaberria Irungo birika berdea dela aipatu izan dute". Pauso gehiago eman aurretik, Olaberria auzoan kontsulta parte hartzaile bat aurrera eramatea eskatu dio Podemosko Irungo taldeak udal gobernuari. Plaiaundiko instalazioak kokatzeko proposamen berria egin du SPIk: datozen urteetan libre geratuko den trenbide espazioa.

Bekoerrotako kokapenak hiriarentzat "ondorio larriak"ekar ditzakeela adierazi du EH Bilduk: "Planteatu ziren zailtasun teknikoek gain, ingurumen aldetik bereziki ondo babestu beharreko eremua da". Koalizio abertzaleak pistak eta errugbi zelaia San Miguel-Anakan kokatzearen alde egin du: "Konbentzita gaude aukera onena dela". San Miguel-Anakako kokapena berrezart-

zea eskatu du EH Bilduk, erregistro bidez. Udalean ordezkariak ez duen Ezker Anitza taldeak ere San Miguel Anakaren aukera azter dezan eskatu dio udal gobernuari. Edonola ere, errugbi eta atletismo taldeen interesak kontuan har ditzaten azpimarratu du, hiritarrek gaiaren inguruan duten iritzia jakitea garrantzitsua dela gogoratuz.

Xabier Iridoy Irungo Udaleko Hirigintza arloko ordezkariak (EAJ) gaiari buruzko azalpenak eman ditu. Alde batetik, oposizioak eta hiritarren zenbait taldek egin dako akusazioak ukatu ditu: "Esan izan da orain korrika eta presaka ari garela, isunen mehatxupean. Ez dago ezer baieztatuta. Eusko Jaurlaritzak jakinarazi behar digu hori, eta momentu honetan ez dugu eperik, ezta isunen inguruko informaziorik ere". Plaiaundiko instalazioak lekualdatzeko lehentasunezko kokapena Zubietakoa dela baieztatu du Iridoyk, baina ezin dutela aukera hori soilik aztertu. "Beste alternatibak landuz joan gara", azaldu du jeltzaleak: "Guztira bederatzi leku posible aztertu ditugu. Txosten teknikoek diote Olaberria dela aukera onena".

Iridoyk nahi baino lehenago azaleratu da, hala ere, udal gobernuaren "B" plana. "Filtrazio bat egon da", onartu du: "Nire planteamendua ez zen hori. Beste modu batera egin beharra zegoen". Xabier Iridoyk aurreratu du gaiaren inguruko eztabaida politikoa iraileko osoko bilkuran egingo dutela, eta orduan, aukera guztiak mahai gainean jarriko dituztela: Arbes, Iparralde-Gal, Ibarla, Osinbiribil, Buenavista muinoa, Beko Errota, Montero, San Miguel-Anaka eta trenbide espazioa.

Ez dadila gehiago atzeratu

Bi hamarkada baino gehiago daramatzate Plaiaundiko instalazioen erabiltzaileek, aterabide baten zain. Horregatik, ez zaie hainbeste inporta azken kokapena zein izango den. "Lehenbailehen har dezatela erabakia", eskatu du Ibon Muñoz Super Amara-BATEko kirol zuzendariak: "Ez dadila irailetik pasa". Ingurumenari dagokionez babestuta dagoen eremu batean egoteaz gainera, Plaiaundiko instalazioek ez dituzte BATen, Txingudi Atletismo Taldearen eta Txingudi Errugbi Taldearen beharrak asetzen. Konponketak egin izan dituzte. "Partxeak", zehaztu du Muñozek.

Homologatua izango den pista eskatzen dute, eta aldagela, biltegi eta gimnasio duinak. "Erabiltzaileen kopurua bikoiztu egin da, eta espazio berean jarraitzen dugu", argudiatu du Ibon Muñozek. Kokapena edozein delarik ere, proiektuak erabiltzaile izango diren klubuen eskaerei erantzun diezaien nahi dute. Hori da haien lehentasuna: "Kokapen baten inguruan adostasuna baldin badago, eta baldintzak betetzen baldin baditu, aurrera".



"Momentu honetan ez dugu eperik, ezta isunen inguruko informaziorik ere"

Xabier Iridoy, Hirigintza arloko ordezkaria

**SARO
MAISUA**
Sendatzailea

Emaitzak jaso ondoren
ordainduko duzu.

Espezialista ondorengo arazoetan:

Maitasuna - Lana - Negozioa
Begizkoa - Senideak - Zortea
Osasuna - Justizia - Etsaiak
Babesa - Sexu ezintasuna

Emaitza bermatuak eta azkarrak.
653 598 887 7:00etatik 22:00etara.



ARGITZE ZENTROA

ESTIMULAZIOA

- Narriadura kognitiboa gelditzea dementzia kasuetan
- Errehabilitazio kognitiboa hainbat kasutan:
Iktusa, traumatismoak, tumoreak, anoxia...
- Adinarekin lotutako narriadura tipikoaren prebentzioa

Ebaluazio neuropsikologiko osoa + txostenak
TERAPIAK: Bakarkako terapia, taldekoa eta mistoa



NEUROPISKOLOGOA

Sanlago, 51
IRUN
635 703055
943 051227

IÑAKI VERGARA, errugbi epailea:

“Epaileak huts egiten baldin badu ere, jokalariek ez dute inguratzen eta estutzen”

Ohorezko B Mailako errugbi neurketa has-
tera zihoan Alacalá de Henaresen, Madrilen. FC Bar-
celonaren errugbi taldearen aurka ariko ziren
etxeok. Blaugranen bisita baliatuta, hiriko Peña
Barcelonista hurbildu zen errugbi zelaira. Haien
lehen errugbi partida izango zen. Neurketak aurrera
egin ahala, protestan hasi ziren, epailearen eraba-
kien aurka. Etxeko zale batek isiltzeko agindu zien.
Epaileak eta jokalariek, denek huts egiten zutela, eta
errespetua eduki beharra zegoela.

Iñaki Vergara irundarra izen zen epailea norgehia-
goka hartan: “Bukaeran, etxeko taldeak hirugarren
deborara gonbidatu zituen Peña Barcelonistako ki-
deak. Txundituta geratu ziren giroarekin, primeran
pasa zuten”. Hogeita hamar urte baino gehiago dara-
matza Vergarak errugbiari lotuta. Azken hemezort-
ziak, epaile lanetan. Erreferentea da estatu mailan,
gaur egun, Espainiako Epaileen Batzordeko Presi-
dentea.

Errugbi jokalaria izan al zinen, epaile baino lehenago?
Jakina. Eskolan hasi nintzen, hamalau urterekin. Gogoan
dut Iñaki Alberdi etorri zela, garaiko Rugby Club Iruneko
presidentea. Futbola izan ezik, beste kirol asko ere pro-
batu nituen txikitik: eskubaloia, saskibaloia, judoa,
mahai tenisa etab. C.D.Bidasoan sartzeko probak egin ni-
tuen, baina ez nintzenek altua, ez ninduten hautatu.
Errugbiak hasieratik harrapatu ninduen.

Zein harreman zenuen orduan epaileekin?

Errugbian hasten zarenetik, aurkariarekiko eta epailea-
rekiko errespetuz jokatzeko erakusten dizute. Ez dut
esango noizbait kexatzen edo protesta egiten ez denik,
batez ere zerbait jokoan dagoenean. Baina jokatzeko
hasteko zarenetik, epailearen erabakiak errespetatzen era-
kusten dizute.

Epaileak huts egiten baldin badu ere, jokalariek ez dute
inguratzen eta estutzen, beste kirol batzuetan ez bezala.
Zaleek beraiek ere, ez diete epaileari txistu egiten edo oi-
hukatzen. Beste kultura bat da, zeharo ezberdina. Horre-
gatik harrapatzen zaitu errugbiak, beste mundu bat
delako.

Hala ere, gogorra eta zakarra dirudi, batzuetan.

Kontaktu handiko kirola da, hori ez dago ukatzerik. Baina
jokalaria ahaleginak egiten ditu aurkariak ukitu ez

dezan. Gertatzen dena da kontaktuak gogorrak direla,
gero eta gehiago, kategoriaz igotzen zoazen neurrian.

Beti egoten da jokalariren bat, momenturen batean
burua galtzen duena, zirikatzen aritu direlako, edo dena
delakoagatik. Baina aurkariari muturrekoa jo dionak, ba-
daki epaileak txartel gorria aterako diola. Onartu egiten
du, eta zelaia uzten du, protesta egin gabe.

Argi dago zeintzuk diren arau-haustekak?

Arauk argi daude, eta lehen premisa jokalaria-
ren segurtasuna da. Urtero moldatzen dira arauak, errugbia ez da
XIX.mendean iltzatuta geratu. Arauk aldatzerako or-
duan, batzorde mediko batek parte hartzen du, hartutako
neurria arriskutsua izan daitekeen erabakitzeko. Gero
eta kontrolatuago dago dena. Gainera, interakzio handia
dugu epaileen, jokalariren eta entrenatzaileen artean.

“Errugbian hasten zarenetik, aurkariarekiko eta epailearekiko errespetuz jokatzeko erakusten dizute”

Nola hasi zinen epaile lanetan?

30 urterekin, Gipuzkoako Federazioak antolatu zuen
ikastaro batean izena eman nuen. Araudia ikasi nuen, eta
konturatu nintzen betidanik egin izan nituen zenbait
gauza okerrak zirela. Askoz hobeto jokatzeko hasi nintzen
orduan.

Partida batean lehen aldiz epaile izan nintzenean, horren
zaila iruditu zitzaidan, harrapatu egin ninduela. Gaur
arte. 1999az geroztik ari naiz honetan.

Epaileak ere parte hartzen du hirugarren denboran?

Bai, ohitura polita da. Etxeko taldeak jatekoa eta edate-
koa ateratzen du, eta bi taldetako jokalariek, entrenat-
zaileek eta epaileek bat egiten dute. Neurketan zehar
izandako gorabeherak komentatzen dira, giro lasai eta
atseginean.

**Nolatan hartu zenuen Epaileen Batzordeko Presi-
dente kargua?**

Arazoia sinplea da. Nik pentsatzen dut kexatzeak eta
neurrik ez hartzeak ez duela ezertarako balio. Kasu ho-
netan, gauzak aldatzeko, barrutik egin beharra dago. Lan
handia eskatzen du, bidaiak, eztabaidak, buruhaustek
etab. Baina ez dut dominarik jantzi nahi, nire filosofiaren
eta ideologiaren parte da. Bizitzeko modua da errugbia.

**Zein bilakaera izan du estatuko errugbiak urte haue-
tan?**

Hobetzat doa etengabe. Gero eta jende gehiago, lizentzia
gehiago daude. Gero eta epaile gehiago ere bai, eta hori
ez da ohikoa errugbiaren munduan, ezta herrialde anglo-
saxoietan ere. Kirol maila gero eta handiagoa da, emaku-
meetan batez ere. Irlandako Mundialean parte hartu
berri du selekzioak.

Euskal talde onak daude, klubetan ahalegin handia egi-
ten delako. Ikaragarria da egiten duten lana, klub txikiak
direlako, baliabide eskasak dituztenak. Baina estatuko
gainerako taldeak bezala, ez dira profesionalak. Jokalari
gehienek haien ogibidea dute, errugbiak aparte.

**Urrun geratzen dira errugbian tradizio handi-
agoa duten herrialdeak.**

Pentsa Ingalaterran futbolak zein garrantzi duen. Eta
hala ere, errugbian milioi bat fitxa gehiago dituzte. He-
rrialde anglosaxoietan, batez ere, ikaragarria da errug-
biaren pisua.



bideosare


Bideoak zure erara!



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com





“Arauk aldatzerako orduan, batzorde mediko batek parte hartzen du, hartutako neurria arriskutsua izan daitekeen erabakitzeko”



Félix Manso

IBARLA

- ✓ Eguneko menua
- ✓ Karta
- ✓ Dastatze menua
- ✓ Pintxoak eta errazioak
- ✓ Bertako produktua, freskoa eta sasoikoa
- ✓ Jatetxe apaina, zaindua, eroso...
- ✓ Terraza zabala barruan eta kanpoan...
- ✓ Leku eguzkitsua eta lasaia, inguru zoragarri batean
- ✓ Ospakizun txikientzeko leku aproposa

943 841 964 Meaka Auzoa, 9, Irun    www.felixmanso.com

Irungo La Salle HH



Iraia Rodriguez Gómez

Irungo La Salle HH. 5 urte



Eneko Briz Oteiza

Euzkaraz, Irunen barrena

Gertatua

- Arrobi batian arri ateratzen ai omentzien.
- Arri bat erori eta gizon bateri bi begiyak atera.
- Gizonak esan omentzuen:
- Jaungoikuak gabon gizonak, neretzat betiko illundu dik!

Elatzeta LH3

AMEZAK

Zer dira ametsak?

Ez daukagu, ez, egun dauden milaka galderen erantzuna: nola sortu da mundua, zergatik, nola sortu gara, zer dago heriotzaren ostean... Oraindik erabat argitu gabeko misterio horietako bat dugu ametsa. Hauek zer diren zehaztasunez dakigula pentsatu arren, (norik ez daki xohetasun osoa).

Ametsak, lo gaudenean sortzen diren irudi edo eszena irrealak dira, eta bertan gure pertsonalitateko sentimenduak, nahiek... agertzen dira. Azken batean, bizitzan orri garen egoera eta honetikoa sentitzen duguna islatzen duten irudiak dira.

Haurrak jarrailu nahikatu dugu ezizko amets, ikerlagarri, fantastiko eta magikoak izaten; horregatik amesgalzotzatik aldentzeko: Amerikako Indioak bezala, amets narraipelari hau egin dugu eskolan, gure ametsak babestu nahian.

**AMETSIK GABEKO
BIZIA, IZARRIK
GABEKO GAUA.**

Manuel
eta
Malem S.B

Gauetan izarrak badaude gure ametsak politak eta delentzagarriak izango dira bestela iturrite eta honorez hurbila zara. Eta ametsak ez hurbiltzen zerbait irrazionala.

2018 ura, Martxoaren 4a, Oñativilla

© ELATZETA

S.R.A. andereari jaso (1959-VIII-11). Anaia Juan Inaziori ikasi zion. (El Bidasoa, 1959-IX-19)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



**GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU**

Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



Australia: unibertsitate osteko helmuga

Bidaian eskuraturiko esperientzia lanpostu bilakatu du Lorena Viera irundarrak

Betidanik izan du gustuko bidaiatzea. Mondragon Unibertsitatean Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntzan graduatu ostean, Lorena Vierak (Irun, 1992) argi zeukan ez zuela etxean gelditu nahi. Horregatik, Australiarako hegazkin txartela erosi eta urte eta erdi eman zuen bertan. Orain, GrowPro Experience enpresak Bilbon duen bulegotik amets berdina duten gazteak aholkatzen ditu, berak Australian bizitako esperientzia lagun duelarik.

Zergatik aukeratu zenuen Australia?

Oso urruti dagoen lurralde bat delako aukeratu nuela uste dut. Amak beti esan dit ilargira bidaiatzeko aukera egongo balitz, nik bidaia hori egin nahiko nukeela. Gainera, Australian egondako Irungo lagun bat dut, beraz, honek ere herrialdearen aukeraketan lagundu zuela uste dut.

Australiara iritsi zinenean bertan egin nahi zenuena argi zenuen?

Ez, egia esan gauzak gehiegi pentsatu gabe joan ginen eta hara iritsi ginenean ez genuen diru gehiegirik. Nire mutil lagunarekin eta bere anaiarekin joan nintzen, baina haiek ni baino hilabete lehenago joan ziren. Ni iritsi nintzenean, furgoneta bat erosi genuen diru gutxigatik, lurralde osoan zehar bidaiatzeko. Australian turista moduan 3 hilabete egon zaitezke soilik, beraz, han denbora gehiago geratzeko ikastaro batean matrikulatu nintzen eta, honela, ikasle bisa bat eskuratu nuen.

Beldurrik izan al zenuen esperientzia honen hasieran?

Bai, ez dakit beldurra edo urduritasuna zen, baina azkenean horrelako leku batera zozazenean beti daukazu sentazio hori zeure barnean. Azken finean, ez dakizu zer aurkituko duzu han. Hala ere, gauza hauetarako ni beti oso ausarta izan naiz, beraz, ez zitzaidan oso zaila egin momentu zailtan aurrera ateratzea. Gainera, nire ustez hau da era honetako bidaiak egiteko momentua, eta beti daukagu etxera itzultzeko aukera.

Zertan desberdintzen dira Irungo eta Australiako bizimoduak?

Nik uste hemen sozialagoak garela, izan ere, etxetik kanpo denbora gehiago ematen dugu. Han, ordea, denbora gehiena etxean sarturik pasatzen dute. Goizeko seiak aldera esnatzen dira, eta lan ordutegi arruntak goizeko 7:00etatik 15:00etara bitartekoak izan ohi dira. Honela, arratsaldea libre izaten dute, baina arratsaldeko bostetatik aurrera ez da inor kalera ateratzen, afari eta jai guztiak etxean antolatzen baitituzte.

Etorkizunari begira, ba ahal duzu bidaia posibleren bat pentsaturik?

Etorkizunean Kanadara joatea gustatuko litzaidake. Oraindik ez dakit posible izango den, baina hori da nire ideia.

Orain daukazu lana Australiako esperientziarekin loturik dagoela esan daiteke. Inoiz imajinatu zenuen horrelako lanpostu bat eskuratuko zenuela?

Ez, izan ere, enpresa hau Australian ikasle bisara pasa nintzenean ezagutu nuen. Australian egon ostean, Asian zehar bidaiatzen egon nintzen bi hilabetez. Etxera lan bila itzuli nintzenean, Facebooken enpresa honek Bilbon bulego berria ireki behar zuela ikusi nuen. Haiekin harremanetan jarri nintzen eta honi esker gaur lana daukat.

Zein zeregin burutzen duzu zure lanean?

Ni naiz Bilboko bulegoko arduraduna eta ni arduratzen naiz burutzen ditugun hitzaldi eta ekitaldi guztiak antolatzeaz. Horrez gainera, hemengo jendeak Australiara joan nahi duenean, nik laguntzen diet behar duten guztiarekin.

Aholkuak eman ostean bezeroekin harremana mantentzen duzue?

Bai, gainera nire adineko jendea izaten da normalean, orduan, kasu gehienetan lagunak egiten gara, eta beti telefonoaren bitartez harremanetan egoteko aukera dugu. Hara iristen direnean, beti asko gustatzen zait bertan gustura dauden jakitea eta beti argazkiak bidaltzea eskatzen diet. Gainera, han ere bulegoak dauzkagu eta ekintzak antolatzen ditugu, beraz, haiekin kontaktuan gaude etengabean.

Zeintzuk dira bezeroek gehien errepikatzen dituzten galderak?

Ea Australian lanik dagoen, hori da jendeak duen kezkarik handiena. Askok errepikatzen den beste galdera bat bertan bizitzeko lekurik hoberena zein den, baina hori oso erlatiboa da.

Nola imajinatuko zenuke zure bizitza hemendik 20 urtera?

Nik uste dut hemendik 20 urtera berriro Irunen egongo naizela, baina puntu horretaraino iritsi baino lehen gauza asko egin behar ditut oraindik munduan zehar.

“Amak esaten dit ilargira bidaiatzeko aukera egongo balitz, nik bidaia hori egin nahiko nukeela”





- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
 - Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
 - Posta elektronikoz: igazte@irun.org
 - Webean: www.irun.org/igazte
 - WhatsApp bidez: 607 771 173

Bulegoko ordutegia udan

Irailaren 29ra arte iGazteko bulegoaren ordutegia 10:00etatik 14:00etara, astelehentik ostiralera izango da.

Hori bai, gogoan har ezazu atek interneten egunero-egunero 24 orduz irekita daudela!

Bidal ezazu posta bat zure zalantzarekin, iradokizunarekin edo informazio eskariarekin.

Posta elektronikoz: igazte@irun.org;
 WhatsApp bidez: 607 771 173
 Telefonoz: 943 50 54 44
 943 50 54 40.

Hendaiako hondartzara joateko autobusa

- Astelehentik igandera (irailaren hasierara arte).

- Prezioa: 1,35 euro.

- Lurraldebus/Mugi txartelak ezin dira erabili.

- Irundik irteerak: 09:00etatik 19:00etara (maiztasuna: 60').

- Hendaiatik irteerak: 09:30etatik 20:30etara (maiztasuna 60').

"Irun Hiria" XXVII argazki lehiaketa

Martxan dago IAE-AFIK Irungo Udalarren laguntzarekin antolatzen duen argazki lehiaketaren 28.edizioa.

Modalitatea: Argazkiak argazki-perean, zuri-beltzean edo koloretan, eta edozein teknika erabiliz onartuko dira.

Antolatzailea: Irungo Argazki Elkarte (I.A.E.).

Gaiak: librea eta Irun.

Epea: urriak 13, barne.

Sariak:

-Irun: "Peio Urtxegi" ohorezko saria hiru argazki bildumari: 500euro eta makila.

Aragazki solteei hiru sari: 300,200 eta 100euro .

Herriko parte hartzaileei sariak: 140, 120 eta 100 euro.

-Librea:

Lehena, bigarrena eta hirugarrena: 200, 150 eta 100euro.

Adour-Bidasoa XXVI

Sariak:
 Lehen saria: 2.500 euro .
 Epaimahaiaren Sari Berezia: 500 euro.
 Egile gaztearen lanik onenari: 500 euro.

Aurkezte epea:
 Irailak 5etik 10era Amaia Kultur Zentroan.

Informazio gehiago: www.irun.org.

Irungo Udalak Adour-Bidasoa XXVI Pintura lehiaketa antolatu du. Pintura munduko artista eta zaletu guztientzat zabalik dago eta baldintza bakarra 18 urtetik gora edukitzea da.



EKAR teleinmobiliaria

Nafarroa ibilbidea, 7 - IRUN ☎ +34 669 408 705
info@ekarinmobiliaria.com www.ekarinmobiliaria.com

PRIMERAKO AUKERAK

 Pisua salgai Irun Añeta- zaharra Añeta 50 m ² , 2 gela, 2 bainu-gela, egongela, bulego, terraza, harrizko harresiak, 200 m ² inguruko lorategia. 75.000 € Ref: 04298	 Pisua salgai Irun Larramundi Añeta 35 m ² , 2 gela, 2 bainu-gela, egongela, bulego, terraza, 200 m ² inguruko lorategia. 127.000 € Ref: 04340	 Pisua salgai Irun Añeta-Portu Añeta 35 m ² , 3 gela, 2 bainu-gela, egongela, bulego, terraza, 200 m ² inguruko lorategia. 139.000 € Ref: 04338
 Pisua salgai Irun San Juan Añeta 100 m ² , 3 gela, 2 bainu-gela, egongela, bulego, terraza, 200 m ² inguruko lorategia, garbaitza, harrizko harresiak, 200 m ² inguruko lorategia. 145.000 € Ref: 04390	 Pisua salgai Irun Añeta-Portu Añeta 47 m ² , 3 gela, 2 bainu-gela, egongela, bulego, terraza, 200 m ² inguruko lorategia, garbaitza, harrizko harresiak, 200 m ² inguruko lorategia. 170.000 € Ref: 04350	 Pisua salgai Irun Donibaita Añeta 30 m ² , 3 gela, 2 bainu-gela, egongela, bulego, terraza, 200 m ² inguruko lorategia. 240.000 € Ref: 04407
 Pisua salgai Irun Kelen Añeta 110 m ² , 3 gela, 2 bainu-gela, egongela, bulego, terraza, 200 m ² inguruko lorategia, garbaitza, harrizko harresiak, 200 m ² inguruko lorategia. 310.000 € Ref: 04360	 Etxea salgai Hendaiako Añeta 110 m ² , 3 gela, 2 bainu-gela, egongela, bulego, terraza, 200 m ² inguruko lorategia, garbaitza, harrizko harresiak, 200 m ² inguruko lorategia. 299.000 € Ref: 04370	 Etxea salgai Irun Ventas Añeta 200 m ² , 4 gela, 2 bainu-gela, 2 terraza, egongela, bulego, terraza, 200 m ² inguruko lorategia, garbaitza, harrizko harresiak, 200 m ² inguruko lorategia. 407.000 € Ref: 03220

"ALQUILER PREMIUM" ALOKATU PISUAK LASAITASUN OSOZ, KONTSULTATU!!

IRAILAK

1

2

3

arbesko jaiak

- **17:00:** Haur jolasak urezko zezenekin.
- **18:00:** Txokolate jatea Pasquier-eko opilekin.
- **18:30:** Buruhandiak aterako dira plazatzotik, Ahuntza trikitilarien taldearekin batera.
- **20:30:** Sevillanak Caramelo taldearekin.
- **22:30:** 80ko eta 90eko urteen omenaldia.
- **09:30-11:00:** Spinning maratoia.
- **10:00:** Eskulanak eta marrazketa lehiaketa auzoko txikientzat.
- **11:00:** Igel txapelketa (helduak eta haurrak).
- **12:00:** Toka txapelketa.
- Egurdian, poteo herrikoia.
- **16:00:** Mus txapelketa Auzo Elkartean.
- **17:00:** Pailazoak (Xalto eta Xuplente).
- **18:00:** Merienda Telepizza-rekin.
- **19:00:** Buruhandiak aterako dira plazatzotik, Peña Poteo txarangarekin batera.
- **22:30:** Hektor Dja.
- **10:00 -14:00:** Gaztelu puzgarriak.
- **11:00:** Patata-tortila lehiaketa (plazatxoaren atzeko aldean).
- **14:00:** Herri bazkaria, Ola sagardotegiko txotxarekin. Menua: Patea, zainzuriak, otarrainak eta txerri saihezia txingarretan, postrea eta kafea. Prezioa: 15€.
- **16:00:** Arbes tabernan, truk lehiaketa.
- **18:00:** Herri kirola.
- **20:00:** Meakako dantza taldea.
- **22:00:** Bakarrizketa.
- **00:00:** Jaien amaiera.



irailak 5-6

Beteranoen irteera Frantziako Pirinioetara

Zer: Irungo Mendizaleak-ek Frantziako Pirinioetara irteera antolatu du. Irailak 5, asteartea: MIDI DE BILGORREra igoera Irailak 6, asteazkena: MADAMETTERa igoera.

Prezioa: 52 euro.

Informazio gehiagorako: Irungo Mendizale elkartean, asteartean eta ostegunetan 19:00-21:00. Telefonoa: 943631484 /630544836.

irailak 10 arte

Antonio Valverderen eraskustaldia

Zer: Antonio Valverde "Ayalde" (1915-1970) erakusketak diziplina anitzeko artista horren irudia eta Irun hiriarekin lotutako bere obra berreskuratu nahi ditu. Inprimatzailea, margolaria, ilustratzailea, idazlea eta kultur dinamizatzailea izan zen Antonio Valverde.

Ordutegia:

Asteartetik larunbatera 18:00-21:00 / Igandetan eta jaiegunetan 11:30-13.30.

Non:

Amaia KZn.

Prezioa: Doan.

irailak 30 arte

"Mugako oroitzenak" erakusketa

Zer: "Mugako oroitzenak" erakusketa eskainiko du Bidasoko Interpretazio Zentroak. Argazki historikoen erakusketa da, mugaz gaindikoz bizitzaren aro ezberdinak erakusten dituen, nazioarteko zubietan, Bidasoa ibaian eta Txingudiko badian zehar. Asteartetik, uztailaren 18tik, irailaren 30era arte ikusi ahal izango da.

Non: Bidasoako Interpretazio Zentroa.

Ordutegia:

- Asteartetik ostiralera 10:00etatik 14:00etara.





Hondarribiko jaiak Caser Betharramen

EGITARUA

Irailak 1, ostirala

- 11:00etan Betharramgo "txikien marrazki-lehiaketa". Haur bakoitzak bere materiala ekarriko du. Lanak, kanpoaldean zintzilikatuko dira.

- 17:30tan festetako meza berezia.

Irailak 2, larunbata

- 18:00etan Betherramgo Alardearen ospakizuna; Guadalupe González Caserreko Kantina.

Irailak 4, astelehena

- 17:30etan Nagusilanen eskutik, Laloren boleroez gozatzeko aukera izango dugu.

Irailak 8, ostirala

- Jaietako bazkari berezia.

- Arratsaldean kafetegiko pantailan Alardea ikusiko dugu.

Irailak 10, igandea

- 13.00etan hondarribiarrentzat eta bertan erroldatuta daudenentzat "Adinekoen omenezko bazkaria" Ardora jatetxean.

- Festei bukaera ona emateko, Kontxako Banderaren emanaldia gure kafetegiko pantailatik.



Guadalupe González Eguilegor, Hondarribikoa, ilusio handiarekin jaso zuen kantinera izatearen berria.

Arropa, bandera eta abanikoa, hurrengo irailaren 2an Mendelu Konpainiako Kantinerarekin batera desfilatzeko prest dazka.



Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA



GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM